

2024/07/31ra

**Inbertsio-politika (laburpena)**

Funtsaren espozioaren %100 errenta finko publiko nahiz pribatuen egongo da, aldeaz aurretik erabaki gabe jaulkitzailea, herrialdea edo zona geografikoa. Herrialde emergenteetan inbertitu ahal izango da. Aktiboaren %70 kreditu kalitate handikoa eta ertainekoa edo Espainiako Erresumaren berdinakoa izango da, azken hori txikiagoa bada, eta %30 gehienez kalitate txikiko aktiboetan egongo da, barne hartuz %5 kalifikazio gabekoetan. Batez besteko iraupena 2 eta 7 urte bitartekoa. %10era arte IKEen bidez inberti dezake. %10 gehienez dibisa-arriskuan. \*Funtsak, bere inbertsioekin, ingurumen alderdiak eta/edo alderdi sozialak sustatzen ditu (2019/2088 (EB) Erregelamenduen 8. artikulua) eta kontrako gorabehera nagusiak (inbertitzen dituen enpresek ingurumenean eta/edo gizartearen eragindako inpaktu negatiboak) arriskuen azterketan eta inbertsio-erabaketan txertatzen ditu. \*Inbertsio-politikaren azalpen xeheagoa funtsaren IFD dokumentuan ikus daiteke. \*FUNTS HONEK %30 INBERTI DEZAKE ERRENTA FINKOKO KREDITU-KALITATE TXIKIKO JAULKIPENETAN, ETA, BERAZ, KREDITU-ARRISKU OSO HAUNDIA DAUKA.

**Ezaugarri Orokorrak**

Ordarea:	46.137.039,70
Komisioak guztira:	%1,50
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenbolto Komisioa:	%0,00
Fondo mota:	EURO ERRENTA FINKOIA
Arrisku-profila:	2 1-etik 7- rako eskalan
Inbertsiorako gutxienekeo epea:	36 hilabete

**2024/07/31ra Errentagarritasunak UTB**

1 hilekoa*	3 hilekoa*	Urtekoa*	Urte 1	3 urte	5 urte
%1,50	%2,07	%1,67	%5,47	-%1,68	-%0,43

\*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekoak.

2024	2023	2022	2021	2020	2019
%1,67	%6,26	-%11,04	-%1,17	%3,05	%4,04

\*Iraganeko errentagarritasunak ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

**2024/07/31ra Estatistikak**

Lurrunkortasun 1 urte**	%3,10
Lurrunkortasun 3 urte**	%3,70

\*\*Informazio hau ez dago erabiltzarri, fondoen antzintasuna edo inbertsio-politikaren azken aldaketatik igaro den denbora, adierazitako epea baino txikiagoa denean.

**Errenta finkoko zorroaren egoera**

Iraupena	4,54
%Kreditu erakusketa	%52,50
Batez besteko rating-a	BBB


**KUTXABANK RENTA FIJA LARGO PLAZO, FI CLASE ESTANDAR**



**Hileko iruzkina**


Uztailen, inbertitzaileek balioa eman zioten AEBko inflazio-erregistroaren tonu onari, urtetik urterako % 3ko jaitsiera izan baitzen. Hala, gutxitu egin zen urte hasierako prezioen azelerazioa. Eurogunean, berriz, uztailen emaniko KPIaren aldeaz aurreko datuek hamarren batekoigoera agerrarazi zuten ustekabearen (% 2.6). Alabaina, irakurketa ez zen izan negatiboa, eta merkatuek konfiantza izaten jarraitzen dute desinflazio-prozesuan eta tasa-murrizketan. Are gehiago kontuan izanda protagonismoa hartzen ari direla hazkunderi lotutako adierazle batzuk, batez ere Estatu Batuetan, ikusirik lan-merkatua indar pixka bat galtzen ari dela eta barne-eskaria mehetzen ari dela -nahiz eta sendo jarraitzen duen-. Europan ere, suspertze-sintomak mantendu arren, inguruabar ahulagoa erakutsi zuten aurreratutako azken datu ekonomikoek. Euroguneko hazkundera hamarren bat egin zuen gora bigarren hiruhilekoan, baina Alemaniako produkzioak oso ukituta jarraitzen du. Munduko gainerako herrialdeetan, Txinak bultzada fiskal apal bat abiarazi zuen kontsumo-ondasunen trukea finantzatzeko eta kontsumitzaileen eta enpresen konfiantza ahula dinamizatzeko. Neurri horrekin eta moneta-tasaren ustekabeko murrizketarekin, Asiako erraldoia moteltze ekonomikoa geldiarazi nahian dabil. Era berean, Atlantikoaren bi aldeetako banku zentraleri dagokienez, eta inflazioa beheranzko joeran ageri den testuinguru ekonomiko ahulago batean, indartu egin ziren Europako Banku Zentralak uda ostean tasak berriro jaisteko itxaropenak, bai eta AEBko Erreserba Federalak irailen lehen aldir jaistekoak ere. Bien bitartean, Japoniako Bankuak, bigarren aldir igo zituen tasa ofizialak. Esparru geopolitikoari dagokionez, ziurgabetasun une bat zabaldu zen, Frantziako hauteskundeen aurrerapenaren emaitzen ostean. Egoera horretan eragin zuen, orobat, Bidenek AEBko presidentetzarako hautagaizta utzi izanak, Trumpen aurrean zuten desabantaila handiak eragindako presioen ondotik. Guzti honek eragina izan zuen indizeetan, arretaz begiraten baitiete emaitza-denboraldiari, sektore-errotazio handi bat emanez konpainia txikien alde eta teknologia-konpainia handien aurka. Hori horrela, D.Jones indizeak 4,4 puntu lortu zituen, eta S&P500 indizeak, berriz, % 1,1. Aldiz, Nasdaq indizeak % 1,63 galdu zuen. Europan, sektore teknologikoarekiko espozizio txikiagoarekin, Eurostoxx 50 indizeak % 0,4 galdu zuen. Munduko gainerako herrialdeak dagokienez, Nikkei % 1,2 jaitsi zen, eta garatzeko bidean dauden herrialdeetakoak, oro har, -% 0,1. Errenta finkoak irabaziak utzi zituen, Europan zein AEBn zor-tasak erlaxatu izanari esker. AEBko 10 urterako bonua % 4,03ra arte jaitsi zen, eta Alemaniako homologoa, berriz, % 2,30era arte. Espainiako erreferentziak % 3,12rarte jaitsi zen. Errenta finkoak, bestalde, murriztu egin zituen diferentzialak -kreditu-kalitate txikienekoak neurri handienez-. Dolarrek % 1 egin zuen behera euroarekiko AEBko datu makro ahulagoek eta zor-tasen jaitsieran izan zuen eragin handiagoak bultzaturik. Azkenik, urreak % 5 egin zuen gora, eta petrolioak, berriz, % 6 behera.

**Rating-aren araberako banaketa**




Errenta finkoko zorroaren Rating-aren araberako banaketa.

**Iraupenaren araberako banaketa**



Errenta finkoko kontado-zorroaren barne dagoen durazioaren banakuntza interes tasaren kurbaren arabera.

**Sektore nagusiak**



Sektoreen araberako ondarearen banaketak ez du likidezia barneratzen.

Dokumentu honen xedea informazioa ematea da eta inola ere ez da, ez kontratu-elementua, ez gomendioa, ez aholkularitza pertsonalizatua, ez eskaintza, eta ezta eskaera ere. Dokumentu honek ez du ordeztzen edozein inbertsio erabaki aurretik legez kontsultatu beharreko informazioa; legezko informazioa nagusitzen da edozein desadostasun izanez gero. Inbertsioak merkatuaren gorabeheren mende daude, eta baloreetako eta beste finantzatzen batzuetako inbertsioetako berezko arriskuei lotuta; horregatik, funtsaren eskuratzeko-balioak eta lortutako errentagarritasunak gora nahiz behera egin lezakete, eta litekeena da inbertsioegileak hasieran inbertitutako zenbatekoa ez berreskuratzea. Funtsaren legezko informazio-dokumentu guztiak (IFD, liburuxka, aldizkako txostenak, etab.) [www.kutxabankgestion.es](http://www.kutxabankgestion.es) webgunean, entitate komertzializatzaileen webgunean eta CNM/ren erregistroetan kontsulta daitezke.